

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HEZKUNTZA ETA KULTURA SAILA

Hezkuntza Zerbitzua

14. ildoko dirulaguntzak ematea eta ukatzea – Ikasteko zailtasunak dituzten haurrentzako laguntza, 2021-2022 ikasturtea

2021eko urriaren 29an egindako ohiko bilkuran onetsi zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 14. ildoko dirulaguntzak ematea eta ukatzea – ikasteko zailtasunak dituzten haurrentzako laguntza, 2021-2022 ikasturtea.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan eta 45. artikuluko b) puntuan xedatutakoaren ildotik, hau argitaratzen da, denek jakin dezaten:

14. ildoko dirulaguntzak ematea eta ukatzeari onespina ematea – Ikasteko zailtasunak dituzten haurrentzako laguntza, 2021-2022 ikasturtea.

2021eko uztailaren 21ean argitaratu ziren, ALHAOn, ikasteko zailtasunak dituzten haurrentzako laguntzen (14. ildoan) deialdi publikoa - 2021-2022 ikasturtea - eta berariazko oinarriak, Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko uztailaren 2an egindako ohiko bilkuran onetsiak. Deialdiaren laburpena 2021eko uztailaren 21eko ALHAOn argitaratu zen, eta hortik aurrera hasi zen kontatzen eskabideak aurkezteko epea.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntza eta laguntzei buruzko ordenantzan xedatutakoa aplikatuz, eta Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko abenduaren 11an egindako bilkuran onetsi zituen Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntza-deialdiak arautzeko oinarri orokorretan ezarritakoarekin bat etorritik, balorazio-organoa bildu da, eta deialdi horretara aurkeztu diren eskabideei dirulaguntza eman edo ukatzeko proposamena egin du.

Kontuan izanik indarrean dagoen gastuen aurrekontuan nahikoa zuzkidura badagoela 2021eko udal aurrekontuko Hezkuntza eta Kultura Sailaren 2319 02 3261 48004 partidan, Hezkuntza eta Kultura Saileko zinegotzi ordezkariak, Tokiko Gobernu Batzarrak eskumenak eskuordetzeko 2020ko otsailaren 24an hartutako erabakia dela medio, erabaki-proposamen hau egiten dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

Erabaki-proposamena

1. I. eranskinean zerrendatutako laguntzak onartzea eta ematea, bertan zehazten diren ikastetxeentzat eta ikasle onuradunentzat, 2021-2022 ikasturterako, bakoitzaren adierazten den zenbatekoagatik, guztira 140.374,00 eurokoa da.

2. Emandako diru-laguntzaren zenbatekoa bi ordainketatan ordainduko da: lehenengo ordainketa, 39.330,00 eurokoa, 2021erako udal-aurrekontuko 2319 02 3261 48004 aurrekontu-partidaren kargura izango da; eta bigarrena, 101.044,00 eurokoa, 2022rako udal-aurrekontuaren kargura, baldin eta aurrekontu horretan horretarako kreditu egokia eta nahikoa badago.

3. II. eranskinean ageri diren ikastetxeei eta ikasleei laguntzak ukatzea, deialdian bertan zehazten diren baldintzak betetzen ez dituztelako.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako epaitegietan, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hala ere, aldez aurretik, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke egintza eman duen organoari, hilabeteko epean, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; kasu horretan, ezin izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik jarri, harik eta egintza berariaz edo ustez ebatzi arte. Jarraian, berariazko ebazpena ematen bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko epea bi hilabetekoa izango da, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, edozein unetan jarri ahal izango da, berariazko araudiaren arabera administrazio-isiltasunak ondorioak izan eta hurrengo egunetik aurrera. Dena den, interesdunek egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez dezakete, nahi badute, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40.2 artikuluan aurreikusitakoaren ildotik.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko urriaren 21ean

Hezkuntza eta Kultura Saileko zinegotzi ordezkaria
ESTÍBALIZ CANTO LLORENTE

I ERANSKINA: ONARTUTAKO IKASLEAK, EMANDAKO DIRU-LAGUNTZA ETA BI ORDAINKETEN ZENBATEKOA

IKASTETXEA	ESKAERAK	ONARTUTAKO IKASLEAK			I. HIRUHILEKOKO ORDAINKETA 2021EKO AURREKONTUA	II. ETA III. HIRUHILEKOKO ORDAINKETAK 2022KO AURREKONTUA	GUZTIRA
		BANAKAKO SAIQAK	SAIO KOLEKTIBOAK	GUZTIRA			
CEIP ABENDAÑO IKASTOLA HLHI	9	9	0	9	882,00	2268,00	3150,00
CEIP ABETXUKO IKASTOLA HLHI	6	4	0	4	392,00	1008,00	1400,00
CEIP ADURTZA IKASTOLA HLHI	16	12	3 (1 grupo)	15	1347,00	3452,00	4799,00
CEIP ALDAIALDE HLHI	3	3	0	3	294,00	756,00	1050,00
CEIP ÁNGEL GANIVET HLHI	8	8	0	8	784,00	2016,00	2800,00
CEIP ARANBIZKARRA IKASTOLA HLHI	13	13	0	13	1274,00	3276,00	4550,00
CEIP ARANTZABELA IKASTOLA HLHI	15	12	3 (1 grupo)	15	1347,00	3452,00	4799,00
CEIPS ARMENTIA IKASTOLA HLBHIP	5	2	0	2	196,00	504,00	700,00
CEIP P.I. BARRUTIA IKASTOLA HLHI	16	12	4 (2 grupos)	16	1490,00	3824,00	5314,00
CPEIPS CARMELITAS SAGRADO CORAZON HLBHIP	4	4	0	4	392,00	1008,00	1400,00
CPEIPS SAGRADO CORAZON HLBHIP	7	6	0	6	588,00	1512,00	2100,00
CEIP DIVINO MAESTRO HLHI	11	11	0	11	1078,00	2772,00	3850,00
CPEIPS CALASANZ ESCOLAPIOS HLBHIP	21	11	10 (5 grupos)	21	1863,00	4772,00	6635,00
CEIP ERREKABARRI HLHI	16	16	0	16	1568,00	4032,00	5600,00
CEIP IBAIONDO IKASTOLA HLHI	15	14	0	14	1372,00	3528,00	4900,00
CPI IKASBIDEA IPI	3	1	2 (1 grupo)	3	255,00	652,00	907,00
CPEIPS INMACULADA C. HLBHIP	4	3	0	3	294,00	756,00	1050,00
CEIP JUDIMENDI HLHI	9	9	0	9	882,00	2268,00	3150,00
CEIP LAKUABIZKARRA HLHI	23	22	0	22	2156,00	5544,00	7700,00
CEIP LANDAZURI IKASTOLA HLHI	14	4	10 (5 grupos)	14	1177,00	3008,00	4185,00
CEIP LÓPEZ DE GUEREÑU HLHI	5	5	0	5	490,00	1260,00	1750,00
CEIP LUIS DORAO HLHI	11	11	0	11	1078,00	2772,00	3850,00
CEIP LUIS ELEJALDE HLHI	4	4	0	4	392,00	1008,00	1400,00
CEIP MARITURRI HLHI	9	8	0	8	784,00	2016,00	2800,00
CPEIPS NTRA. SRA. DE LAS MERCEDES HLBHIP	8	8	0	8	784,00	2016,00	2800,00
CEIP MIGUEL CERVANTES HLHI	19	15	4 (2 grupos)	19	1784,00	4580,00	6364,00
CPEIP NCLIC HLHIP	4	4	0	4	392,00	1008,00	1400,00
CPEIPS NIÑO JESÚS HLBHIP	9	9	0	9	882,00	2268,00	3150,00

IKASTETXEA	ESKAERAK	ONARTUTAKO IKASLEAK			I. HIRUHILEKOKO ORDAINKETA 2021EKO AURREKONTUA	II. ETA III. HIRUHILEKOKO ORDAINKETAK 2022KO AURREKONTUA	GUZTIRA
		BANAKAKO SAIOAK	SAIO KOLEKTIBOAK	GUZTIRA			
CEIP ODÓN DE APRAIZ HLHI	12	12	0	12	1176,00	3024,00	4200,00
CEIP PADRE ORBISO HLHI	12	11	0	11	1078,00	2772,00	3850,00
CEIP RAMÓN BAJO HLHI	8	6	0	6	588,00	1512,00	2100,00
CEIP SALBURUA HLHI	6	4	2 (1 grupo)	6	549,00	1408,00	1957,00
CPI SAMANIEGO IPI	24	24	0	24	2352,00	6048,00	8400,00
CEIP SAN IGNACIO HLHI	9	9	0	9	882,00	2268,00	3150,00
CEIP SAN MARTÍN HLHI	18	17	0	17	1666,00	4284,00	5950,00
CPEIPS SAN VIATOR HLBHIP	1	1	0	1	98,00	252,00	350,00
CEIP SANTA MARÍA DE VITORIA HLHI	2	0	2 (1 grupo)	2	157,00	400,00	557,00
CPI SANSOMENDI IPI	5	5	0	5	490,00	1260,00	1750,00
CEIP TOKIEDER IKASTOLA HLHI	12	11	0	11	1078,00	2772,00	3850,00
CEIP UMANDI IKASTOLA HLHI	9	7	2 (1 grupo)	9	843,00	2164,00	3007,00
CPEIPS URKIDE HLBHIP	10	10	0	10	980,00	2520,00	3500,00
CEIP ZABALGANA HLHI	12	12	0	12	1176,00	3024,00	4200,00
GUZTIRA	427	369	42 (20 talde)	411	39330,00	101044,00	140374,00

II. ERANSKINA: ONARTU GABEKO IKASLEAK

IKATETXEA	ONARTU GABEKO IKASLEA	EZ DAGOKIO DLHKO 2.ETIK GORAKO MAILAN EGOTEAGATIK ETA AURREKO DEIALDITIK EZ ETORTZEAGATIK	EZ DAGOKIO LAGUNTZA ESKATZEN DUEN HIRUGARREN ALDIA DELAKO	EZ DAGOKIO EZ ZUELAKO EUSKO JAURLARITZAREN LAGUNTZA JASO 2020- 2021 IKASTURTEAN	UKO EGITEA / EZ JOATEA
CEIP ABETXUKO IKASTOLA HLHI	2	1	--	1	--
CEIP LAKUABIZKARRA HLHI	1	--	--	--	1
CPEIPS INMACULADA C. HLBHIP	1	--	--	--	1
CEIP SAN MARTÍN HLHI	1	1	--	--	--
CEIP ADURTZA IKASTOLA HLHI	1	1	--	--	--
CEIPS ARMENTIA IKASTOLA HLBHIP	3	3	--	--	--
CEIP IBAIONDO IKASTOLA HLHI	1	--	--	1	--
CPEIPS SAGRADO CORAZÓN HLBHIP	1	1	--	--	--
CEIP MARITURRI HLHI	1	--	1	--	--
CEIP PADRE ORBISO HLHI	1	--	--	1	--
CEIP RAMÓN BAJO HLHI	2	2	--	--	--
CEIP TOKIEDER IKASTOLA HLHI	1	1	--	--	--
GUZTIRA	16	10	1	3	2